

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BURGELUKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Ixonako UE-08 urbanizazio proiektuari**

Alkateak 2019ko azaroaren 22an emandako 124 Ebazpenaren bidez, behin betiko onetsi da Ixonako UE-08 eremurako urbanizazio proiektua (1 poligonoko 129B lurzatia), zeina Ruth Sáenz Lunak aurkeztu baitzuen eta Amaya Salinas de León arkitektoak idatzi baitzuen, arkitekto horrek berak idatzitako dokumentazio tekniko osagarriarekin batera, udaleko arkitekto teknikoak 2019ko abuztuaren 9an eta irailaren 27an egindako txostenetan adierazitako baldintzekin.

Argitaratu egiten da, dagozkion ondorioak izan ditzan, hirigintza planeamenduaren errege-lamenduak 141.4. artikuluan agindutakoa betez.

Burgelu, 2019ko azaroaren 25a

*Alkatea*

*NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA*